

JARDUERA SOZIOKULTURALAK ANTOLATZEKO 2012KO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Barañaingo Udalak, Kultura Arloaren bidez, ondoko deialdia ezarri du, jarduera soziokulturalen antolaketa laguntzarren. Deialdiak **14.000 €**, gehienez, eskaintzen ditu. Deialdiak ondoko oinarriari jarraitzen die:

1.- XEDEA

Barañaingo biztanleei jarduera soziokulturaletan parte hartzeko bidea erraztu, eta herriko taldeei eta elkartei lagundu jarduera soziokulturalak antolatzen eta urteurrenak ospatzen. Deialdi honen baitan programen, proiektuen eta jardueren antolaketa lagunduko da; musika, antzerkia, zinea, dantza, justizia sozialaren baloreak, ingurumenaren babes eta tokian tokiko adierazpen soziokulturalak sustatzen dituztenak, ez parte-hartze hutsa, Barañaingo Udalak berezko deialdi ezberdin bat duelako jarduera soziokulturaletan parte-hartzea laguntzeko. Deialditik kanpo geratzen dira irakaskuntzaren esparruko elkarteek antolatzen dituzten formakuntza-jarduerak.

Jarduera guztiek 2012ko abenduaren 31 baino lehen eta Barañainen egitekoak behar dute izan. Salbuespen gisa, Barañainen helbidea duten eta udal esparruaz kanpo zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek nahiz erakundeei deialdiko ezarpen osoaren %10a ematen ahal zaie, baldin eta udalerriko biztanleriaren onurarako den eta kultura arloak aldeko balorazioa egiten duen.

Jarduerak ezin dute Barañaingo Udalaren beste arlo edo programetako beste diru-laguntzarik jaso. Udalaren zerbitzu ezberdinek eskainitako jardueren ezaugarri beretsuak edo zerikusia duten proposamenek, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

2.- BALDINTZAK

Deialdian parte hartzen ahalko dute honako pertsonak eta entitateak:

- a) Irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek, Barañainen helbidea dutenak eta udalerraren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenak.
- b) Barañainen helbidea duten pertsona fisikoak, udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenak.
- c) Barañainen helbidea ez duten eta irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek eta pertsona fisikoek, baldin eta udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten badituzte.

3.- ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak Barañaingo Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira –Kultura Arlorantz zuzenduta–, **2012ko martxoaren 23ko 14:00ak baino lehen**.

Eskabidearekin bat, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Jardueraren elkarte, entitate edo erakunde arduradunaren oinarrizko datuak: legezko izena; jarduera nagusia; helbide soziala; harremanetarako modua (telefonoa, faxa, posta elektronikoa) eta IFZaren fotokopia.
- Bankuko datuak: banku-entitatea, kalea eta herria, sukurtsala eta bankuko kontu zenbakia.

-Eskabidea aurkezten duen pertsonaren datuak: izen-abizenak, NAN, kargua, helbidea eta harremanetarako modua (telefonoa, faxa, posta elektronikoa).

-Eskabidea aurkezten duen pertsonaren adierazpen sinatua, zeinetan adierazten baita txostenean jasotako informazioa zehatza dela.

- Programaren edo jardueraren –zeinarendako diru-laguntza eskatzen den– azalpen txostena. Bertan, espresuki adieraziko da non eta noiz burutuko den.

- Jarduera edo programaren aurrekontua, kontzeptuak bereizita.

-Jarduera finantzatzeko egitasmoa eta zabaltze-plana.

- Elkarateak duen parte-hartzea eta inplikazioa udalerriko jarduera kulturaletan, laburtuta.

- Proiektuak dituen laguntza edo diru-laguntzen berri ematen duen adierazpena, eta, horrelakorik ezean, inongo laguntzarik jasotzen ez duela adierazten duen aitortpena. Halaber, lehenagotik laguntzarik eskatu baldin bada eta deialdi honetako eskabidea aurkeztutako momentuan oraindik erabaki gabe baldin bada, hori ere adierazi beharko du.

- Parte-hartzeari buruzko datuak, sexuaren araberako sailkapena eginez.

Agiriak originalak edo konpultsatutako fotokopiak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

4.- BALORAZIOA

Kultura Arloko Batzorde informatzaileak espedienteaz aztertuko du eta Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dio onartu eta diru-laguntzak ordain ditzan, Kultura Arloko zerbitzu teknikoek emandako alde aurreko txostenarekin eta Udaleko Kontu-hartzailetzak alde aurretik fiskalizazioa egin ondoren.

Aurkeztutako proiektuen, jardueren eta programen balorazio teknikoak ondoko atalak eta bakoitzean agertzen diren puntuazioak izanen ditu kontuan:

4.1.- Jardueraren, proiektuaren edo programaren kalitatea, bideragarritasuna, originaltasuna, metodologia eta disciunua. 40 puntu.

4.2.- Jarduera, proiektua edo programa zabaltzeko eta komunikatzeko plana. 15 puntu.

4.3.- Elkarateak edo erakundeak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia, bilakabidea eta gaitasuna. 10 puntu.

4.4. Elkarateak, erakundeak edo organismoak Barañainen duen inplikazioaren, parte-hartzearen eta ematen duen laguntzaren balorazioa, eta Barañaingo biztanleek erakundearen duten parte-hartzearen garrantzia. 10 puntu.

4.5. Jardueraren, proiektuaren edo programaren kostu ekonomikoa. 10 puntu.

4.6. Elkarate edo erakundearen parekidetasuna antolaketa-egituraren baitan eta hizkera ez-sexistaren erabilpena. 10 puntu.

4.7. Ingurumenarekiko arduratsuak eta iraunkorrak diren jardunbideak abiaraztea. 5 puntu.

5.- EMAKIDA

Eskaerek diru-laguntzen zenbatekoa gainditzen badute, bertan behera gelditzen ahalko dira balorazioan punturik gutxien eskuratu dutenak, edo proportzionalki banatzen ahalko da diru-laguntzaren zenbatekoa eskaeren artean.

Udalak, halaber, deialdiko bi modalitateetan izena eman duten proiektuen kopurua aintzat harturik, dirua modalitate horien artean bereizketarik egin gabe banatzen ahalko du, lehenago aipatu diren irizpideei jarraiki beti ere.

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesatuak horren berri hartu eta 10 eguneko epean argi uko egiten ez badio. Eskatzaileak Batzordearen aurrera ager daitezen eskatzen ahalko da, Batzordeak eskatutako edozein argibide eman dezaten.

Emandako zenbatekoa bi epetan ordainduko da (organo eskudunak zehaztutako kasu berezietan izan ezik): %50a, emakida egin ondoren. Gainontzeko %50a, jarduera egin eta 6. oinarria bete ondoren.

6.- BETEBEHARRAK

Onuradunek nahitaez egin beharko dute proiektua onartutakoarekin bat eta diru-laguntza jaso duen jarduera egin bitartean izandako edozein gertakariren berri eman beharko dute gertatu eta berehala.

Horretaz gainera, derrigorrezkoa izanen den jardueraren zabalkuntzan, Barañaingo Udaleko Kultura Arloaren laguntza jaso dutela aipatu beharko da. Horretarako, Udalaren eta Kultura Etxearen logotipoak azaldu beharko dira (Kultura Etxean eskatu behar dira).

Jardueraren txostena, edukia eta zein modutan egin den, balantze ekonomikoa (gastuak eta sarrerak) eta jarduera egin bitartean izandako fakturen egiaztagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak **2013ko urtarrilaren 25eko 14:00ak** baino lehen aurkeztu beharko dira, Barañaingo Herritarrak Hartzeko Bulegoan. Indarreko legeriarekin bat aurkezten diren fakturek baino ez dute baliorik izanen, eta aldez aurretik aurrekontuan sartutakoak (ez dira onartuko jasoagiriak eta justifikatzeko zuzenak ez diren gainerako moduak).

Jarduera irabazizkoa bilakatzen bada, udalaren diru-laguntza itzuli beharko da; lortutako irabaziaren arabera izanen da bueltatu beharrekoa.

Onartutako aurrekontuaren ehuneko bat izanen da diru-laguntzaren zenbatekoa. Azkenean izandako benetako kostua hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, bi kostuen arteko tartearen %tan murriztuko du Batzordeak diru-laguntzaren zenbatekoa. Horregatik, aurrekontu ahalik eta zorrotzena aurkeztea aholkatzen dugu.

Diru-laguntzaren onuradunek, diru-sarrera jaso aurretik, Barañaingo Udalarekin dituzten zerga-betebeharrak egunean dauzkatela egiaztatu beharko dute.

Deialdi honetako baldintzaren bat beteko ez balitz edota memoria aipatutako epeetan aurkeztuko ez balitz, diru-laguntza bertan behera utzi eta emandako zenbatekoa itzularaztea erabaki lezake organo eskudunak.

7.- EZ BETETZEA

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauetara jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea

eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, diru-laguntzak arautzen dituen araua estatu mailan.

8 - HELEGITEAK

Oinarri hauen eta horiek betearazteko egintzen aurka ondoko errekurtsio hauetakoren bat paratzen ahalko da:

1.- Jakinarazi eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik, eta nahiz gero, Birjarpeneko errekurtsioa, erabakia hartu duen udal-organoaren aurrean (30/1992 Legea, azaroaren 25ekoa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatu zuena); birjarpenekoa aurkeztuz gero, ezin izango da ez gorako errekurtsioa ez administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri, birjarpenekoa ebatzi edo ustez ezetsi arte. Birjarpenekoaren ebazpenaren aurka ezin izango da beste birjarpeneko errekurtsioa aurkeztu.

2.- Jakinarazi eta hilabete bat igaro aurretik, eta nahiz gero, Gorako errekurtsioa Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean (6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa). Gorakoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri gorakoa espresuki ebatzi edo ustez ezetsi arte.

3.- Jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hurrengo bi hilabeteak amaitu aurretik, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aipatu jurisdikzioaren organo eskudunaren aurrean (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).